



# KAPITALISMOAK DESIRA SUSTATZEN DU ETENGABE, BAINA GOZAMENA GERORAKO UZTEN DU BETI



Franco Berardik gazterik ulertu zuen kapitalismoaren kontra borrokatu beharra zegoela, eta Boloniako ikasleen protestak piztuz geroztik 40 urte luze joan badira ere, italiar filosofoak buru-belarri dihardu, oraindik ere, bizitza gozagarriagoen aldeko aldarrian.

Kontuz, baina, haren diskurtsoan ez baitira gauza bera gozamena eta hedonismoa. Gozamenak, benetako *eros* izateko, etikoa eta enpatikoa izan behar du. Ekainean Donostiara etorri zen, eta aukera aprobetxatu genuen harekin honetaz guztiaz hitz egiteko.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

**1970ean argitaratu zenuen zure lehenengo liburua: *Contrailavoro* [Lanaren kontra]. Arreta eman dit izenburuak. Nola ikusten duzu lanaren auzia, lehen liburu hartatik 50 urte igaro diren honetan?**

Liburua berrirakurtzen saiatu naiz duela gutxi eta ez dut piperrik ulertu, halako hizkera marxista klasiko eta oso konplikatu batean idatzita dagoelako. Nolanahi ere, liburuan azaltzen den kontzeptu nagusia guztiz gaurkoa iruditzen zait, orain dela 50 urte baino askoz premiazkoagoa.

Zer esan nahi du lanaren kontrako aldarrikapenak? Esan nahi du ez dugula gehiago lan egin behar, ezpada gutxiago, askoz gutxiago. Eta hori ez diot nik bakarrik. Elkarrengandik oso urruti dauden beste bi pertsonak diote. Bata, jakina, Karl Marx da. Orain dela 150 urte testu izugarri garrantzitsua idatzi zuen, “Makinei buruzko pasartea” –*Grundrisse* liburuan– eta Marxek zioenez, kapitalaren garapenaren ondorioz emankortasuna handitzen zen, eta emankortasunaren ondorioetako bat zen lan gutxiago eginda

gauza erabilgarri gehiago sortzen zirela. Beraz, Marxek zioen kapitalismoaren patua zela kapitalismoa bera gainditzea makinei eta teknologiari esker.

**Zein da beste pertsona?**

Larry Page da, Google-eko operazio burua. 2014ko elkarrizketa batean esan zuen Google-k martxan jarriko balitu gaur egun garatzen ari diren adimen artifizialeko gailu tekniko guztiak gaur egun diren lanen %50 desager daitekeela gaudetik goizera.



**Eta hori ona al da?**

Ona da? Txarra da? Badirudi teknologia-ren potentzia kalterako dela, izugarrizko desgrazia dela benetan: ba ez, aukera bat da, baina kapitalismoak ezin du aukera hori onartu, hain justu ere gizakien lana esplotatzea baita dinamika kapitalistaren oinarria. Hala, kapitalismoak superstizio bat sortu du, lanaren superstizioa, hau da, jan nahi baldin baduzu lana egin behar duzula. Ideia hori desastre hutsa da, zeren, horren ondorioz gero eta lan gehiago egiten dugu, eta, hortaz, gero eta langabe gehiago daude, gero eta miseria handiagoa dago, gero eta alienazio handiagoa, sufrimendu latzagoa, psikopatia gehiago eta abar. Ez da erraza, noski, oso zaila da, baina konponbide bat dago: lanari eskaintzen diogun denbora kolpean murriztea, eta denbora gehiago eskaintzea, beraz, hezkuntzari, terapiari, plazerari... bizitzari.

**Terapia aipatu duzu eta hari horri heldu nahi nioke orain. Esan izan duzu psikoterapia edo**



## Azken hitza

### HORI EZ DA POLITIKA

“Munduan gertatzen ari denak ez dauka inongo zerikusirik politikarekin. Politika existitzen zen garaian, arrazionaltasunaren arte bat zen: arrazionaltasun ona txarraren kontra, edo alderantziz, baina arrazionaltasuna azken batean. Nolanahi ere, gaur egun arrazionaltasuna desagertu egin da, finantzaren algoritmoarekin identifikatzen baita arrazionaltasuna orain. Denek arbuatzen dute finantzaren algoritmoa, baina berdin sinesten dute hura dela arrazionaltasuna. Gaur egungo hiper-saturazio mediatikoak halako kaka-ekaitz bat sortu du, eta horren ondorioz, giza burmuinak ezin du arazoiz funtzionatu, eta horregatik bozkatu du jendeak Trump ergel horren alde”.

### egonez emozional eta psikikoen tratamendua ez dela sekula modu sistemiko edo kolektiboan landu. Ikuspegi hori aldatu behar genukeela uste duzu?

Pasa den mendean bi arazo zeuden, bereiziak: batetik, arazo soziala, lana, esplotazioa, langileen eskubideak... Eta, bestetik, norberaren egonez psikikoaren arazoa. Bigarren arazoa, muinean, burgesiari zegokion, neurosiak jotako norbanakoak ziren, hainbat arrazoi tarteko, adibidez, familiaren edo sexualitatearen ondorioz. Gaur egun, bi arazok bere horretan dira, baina egoera zailagoa da, zeren bi arazoak nahastu egin dira, hau da, gaur egun, egonez psikikoa, indibiduala izanik ere, ezin da indibidualki ulertu ez konpondu, eta berdina gertatzen da lanaren eta prekaritatearen arazoarekin: arazo hori ezin da sufrimendu psikotik bereizirik ulertu. Beraz, zerbait sortu behar dugu, teknika bat, praktika bat edo arte bat, bi auziak elkartzeko, terapiaren auzia eta eraldaketa edo askapen sozialaren auzia elkartzeko. Ez da erraza, izan ere, sufrimendua gauza bakartia dela sinesten baitugu oraindik ere, baina nik uste dut haxe dela gaur egun bizi dugun esplotaziotik eta sufrimendutik ateratzeko modu bakarra.

### Plazerik gabeko desira sustatzen duen sistema: zure ustez, horixe da kapitalismoa.

Esan genezake kapitalismoak etengabe sustatzen duela desira, baina inoiz plazerik eman gabe, aitzitik, plazera gerorako uzten duela beti, eta betiko. Kapitalismoak behartzen zaitu etengabe produzitzera eta kontsumitzera, baina inoiz ez gozatzeri. Era berean, gaur egun gertatzen ari den eraldaketa teknologikoaren ondorioz, desiraren zirkuitua izugarri bizkortzen ari da, eta plazera sentitzeko aukera beti gerorako uzten du, modu benetan mingarrian. Gaur egun ezagutzen eta erabiltzen ditugun pantailak, oso-oso ugariak izaki, desira hiper-sustatzen dute, eta, aldi berean, bertan behera uzten dute plazera, betiko geroratzen dute. Gure garaiari buruzko diskurtso nagusi bat da hori, baina iruditzen zait horrek guztiak eragin nabarmena duela sexualitatearen eremuan.

**Nola?**

Hona hemen datu esanguratsu bat: farmazia-enpresen estatistiken arabera, gazteek erabiltzen dituzte gehien jatorrian zaharrentzako asmatu ziren pilulak –hala nola Viagra eta erektzioa laguntzeko bestelako pilulak–. Zergatik gertatzen da hala? Bada, batetik, gazteek ez daketelako ezer erotismoaz, zeren pornografiaren iturritik ikasi baitute dakiten guztia, eta uste dutelako pornografia eta erotismoa gauza bera direla. Azkenik, eta hau da garrantzitsuenak, gazteek ez daukate astirik desira hizkuntzaren bidez adierazteko eta garatzeko. Azken batean, *eros* fenomeno linguistikoa da, eta hori ulertzen ez bada ez da inoiz ezer ulertuko erotismoa. Kontsumoaren erritmoa azkartu den heinean, desira hizkuntzaren bidez garatzeko gaitasuna suntsitu da.

### Enpatiaren etika aldarrikatu duzu; sentikortasunaren etika, adimenaren etikaren orde.

Zer esan nahi du etikak? Zentzu batean, filosofiaren historian, auzi hori oraindik ez da konpondu. Adibidez, horra hor Kanten etika, gizarte moderno eta demokratikoaren etika, zeinak, batez ere, arau unibertsalak aipatzen baititu. Arau interesgarriak dira, baita onak ere, baina arauak dira azken batean. Etika arautegi moduan hartzen badugu, bizitza sozialaren izaera ziniko eta anti-etikoa mantentzen dugu. Bizitza sozialean hainbat gauza elkartzeko dira: batetik, egunerokoan, dirua pilatzeko premia dago; bestetik, badira zenbait arau, nahi badugu edo ahal badugu errespetatu behar ditugunak; eta, azkenik, legea dago, zeinak arau etikoa ezartzen baitu. Legea eraginkorra izan daiteke, errepresioa erabiltzen duelako, baina aukera hori ez da oso ona. Orduan, zein da arazoa? Bada, filosofiaren bidez esateko, arazoa da *Eros* eta Agaperen bereizketa, hau da, desira eta ontasunaren betebeharra bereiztea. Bereizketa horren ondorioz, etika ez da plazeraren eremuko gauzatza hartu. Kontu honetan, bestearen gorputza dago jokoan: nola bizi dugun bestearen gorputza.

**Nola bizi dugu bestearen gorputza?**

Arazo psikoanalitikoa da. Uste baldin badugu bestearen gorputzaz jabetu gaitez-





# Franco Berardi

## *Bifo*

BOLONIA, ITALIA, 1948



keela, bada, orduan, bestearen gorputza ez da sekula izango gure sentikortasunaren parte. Aitzitik, bestearen gorputza enpatiaren bidez ulertzen badugu, hau da, bestearen gorputza gure gorputzaren jarraipena dela ulertzen badugu, orduan, bestearen plazera gure plazera izango da, eta bestearen sufrimendua, berriz, gure sufrimendua. Ez naiz utopiaz ari. Demagun gela txiki batean lau pertsona bizi direla, eta haietako bat izugarri sufritzen ari dela: kasu horretan, harekin dauden pertsonak sufritu egingo dute pertsona horren sufrimendurekin, eta hala ez baldin bada, horrek esan nahi du gaixo dagoela. Gu halakoxe mundu batean bizi gara, gela txiki bat da, eta jende gehiena izugarri sufritzen ari

da, baina gu saiatzen gara ez ikusten. Gu gaude gaixo, eta ez besteak. Uste dut arazo psikopatologiko bat dela muinean; beraz, ez zait moral arautzailea interesatzen, ezpada gaur egungo enpatia falta sendatzeko zerbait.

**Etorkizunari buruz galdetu nahi dizut orain. Andre Groppleroren *Comunismo futuro* dokumentalean agertzen zara, eta zure azken liburua *Futurabilidad* deitzen da. Arreta eman dit: bi lanetan kontzeptu bera, etorkizuna. Nola ikusten duzu datorrena?**

Egia esan, ez naiz oso baikorra. Etorkizunari buruz ari garenean ez gara ari halako gauza irudikatu bati buruz, ez, orainari buruz ari gara, orainean idazten baita

Filosofoa. Gaztetan lotura handia izan zuen komunismoarekin. 1976an Radio Alice irratia sortu zuen, eta 1977an buru-belarri ibili zen Bolonian ikasleek egindako protesten mugimenduan. Polizia atzetik zebilkionez, Parisera joan zen, eta AEBetan ere bizi izan zen, 80ko hamarkadaren hasieran. Gaur egun, jaioterrian dihardu irakasle, baina hitzaldiak ematen ditu sarri han-hemenka. Sakon aztertu ditu komunikabideak eta teknologiaren zabalkundeak eta aurrerakuntzak gizakiengan izan duten eragina. Hogeitik gora saiakera argitaratu ditu.



etorkizuna. Eta orain, gaur egun, munduko mapari begiratu, eta hor ikusten dut, Filipinetatik Brasilerara, nola ari den zabal-tzen arrazakeria eta nazionalismo bortitza, eta nire kautan pentsatzen dut gerra ekidinezina dela, gerra prestatzen ari dela gaur egun. Era berean, ikusten dut nola ari diren agertzen hondamen ekologikoaren eraginak, eta ikusten dut klase politiko nagusiak ez diola jaramonik egiten, arazo ekologikoa ez zaiola interesatzen zeren beren kezka bakarra da hazkuntza ekonomikoa bultzatzea; hori ikusita, nire kautan pentsatzen dut apokalipsi ekologikoa ekidinezina dela. Baina, Keynesek esan zuen eran, intelektualek zeregina da ekidinezinaz hitz egitea. Eta, nolanahi ere, ekidin ezin dena baino, aurreikusi ezin dena gertatzen da, eta horrexen zain nago ni, aurreikusi ezin denaren zain.

#### **Eta zer da hori?**

Bada, aurreikusi ezin dena ez zaigu besterik gabe zerutik etorriko; aitzitik, aurreikusi ezin dena ahaleratik dator, gertatu ahal denetik: agian aurreikusteko

zaila zen, baina posible da. Aurreikusi ezin denak ezin du ezinezkoa izan. Beraz, gaur egun, zer dago aurreikusi ezinezkoa eta aldi berean posible? Nik komunismoa deitzen diot. Baina komunismo horrek ez dauka inongo zerikusirik Leninekin, gerra garaiko komunismoarekin, Sobietar Batasunarekin eta proletarioen diktadurarekin. Aitzitik, komunismo horren ardatzak dira aberastasunaren birbanaketa, lanaldiaren murrizketa eta bizitza zoriontsu eta aldi berean etiko bat bizitzeko aukera –betiere lehen aipatu dudana etikaren zentzuan–.

#### **Hau da, gutxi batzuen zoriontasunaren oinarria ez izatea askoren sufrimendua.**

Hain zuzen ere! Zoriontasun mota hori ez da ez etikoa ez erotikoa.

**Donostian pasa dituzun egunotan, UBIKeko bitartekarien egoera ezagutu duzu. Zer iritzi duzu gai horretaz? [Elkarrizketa egin genionetik UBIKeko langileek**

#### **akordioa lortu dute eta greba amaitua da].**

Ezin dut hitz egin Donostian gertatzen ari den lan gatazka baten inguruan, ez bainaz hemen bizi eta ez baitut aski ezagutzen. Nolanahi ere, hauxe esan dezaket: bitartekariak behar ditugu, eta ez bakarrik bederatzi, bitartekari mordo bat behar dugu. Izan ere, zer egiten du bitartekariak? Bada gatazka garatzen eta bideratzen du psikologikoki eta hizkuntzaren bidez. Gatazka luze-zabal hedatzen ari da: gatazka etnikoa, gatazka soziala, genero-gatazka, sexu-gatazka... Halako egoera batean non oldarkortasuna hazten ari baita, bitartekarien armada bat behar dugu. Bitartekariak ezin dute egoera prekarioan egon, ezin dute segurtasunik gabe bizi, bermeak behar dituzte, soldata duinak behar dituzte eta asko izan behar dute. Horixe da nire proposamena, eta ez naiz zuzenean Tabakaleraz ari, ezpada Europako instituzio publikoez. Nire iritziz, bitartekaritza linguistikoak eta kulturalak oinarritzeko aukia izan behar luke Europa benetan gizatiar eta demokratikoa eraiki nahi baldin badugu. ●